

7.- FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Hauek dira gure funtsezko baliabideak:

- **Finantza-baliabideak:**

Eskainiko dugun zerbitzu honen finantza baliabideak Eusko Jaurlaritzarengandik, Bizakaiko Foru Aldundiarengandik eta herriko udaletxearengandik eskuratuko ditugu.

- **Baliabide materialak: eraikina, altzariak eta materiala, kotxea.**

Gure zerbitzua eskaintzeko, baliabide fisiko batzuk izatea ezinbestekoa izango da. Haurren zaintza aurrera eramateko, dagokion erakundearekin hitzartuko ditugu beharrezko ditugun espazio horren inguruko ezaugarri guztiak, hala nola, kokapena, baldintzak (alokairua edo erabilera librea).

2 gelako lokala izan beharko du eta komuna barruan edo eraikuntzak izatearekin nahikoa izango da. Bestalde lokala egokitu gabe egongo da eta guk inbertsioa egin beharko dugu hau modu egokian jartzeko. Berogailua beharrezkoa da.

Bestalde, guretzat web orria funtsezko tresna bat da, honen bitartez jendea gurekin harremanetan jarriko delako, horregatik, hau uneoro erabilgarri egon dadin garrantzitsua izango da ekipo informatikoa izatea (ordenagailua, pantailak, teklatuak, saguak, wifia...). Beste beharrezko gailu bat telefonoa izango da, jendearentzat eskuragarri egon behar garelako edozein zalantzari erantzuna emateko.

Gelan haurren beharrak beteko dituzten altzariak izango ditugu, aldatokiak eta arropak uzteko eskegitokiak batez ere. Guzti hauek baliabide ukigarri bezala ezagutzen ditugunak dira.

- **Giza baliabideak:**

- Hezitzaileak: Haurren zaintzaz arduratuko dira. Eskareren araberako kopurua izango dira. Hezitzaile bi 10-15 haur talde bakoitzeko.
- Koordinatzailea: funtsezko elkarteekin koordinatze lana beteko du batez ere. Kudeaketa ekonomikoetaz ere arduratuko da.
- Informatika eta harrera zerbitzu arduraduna: komunikazio eta harremanetaz arduratuko da.